

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Erdi Aroko Hiriguneko Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren hamaseigarren aldaketaren proiektua onestea, zein kanpoko elementuak gainjarrita eraikinetako bizigarritasuna hobetzeko esku hartzeak xedatzeko baita, eta hasierako onespena ematea Erdi Aroko Hiriguneko BBPB horri

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko azaroaren 29an egindako ohiko bilkuran:

1. Onspena ematea Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Barne Eraberritzeko Plan Bereziaren hamaseigarren xedapen-aldaketaren proiektuari.

2. Hasierako onspena ematea Barne Eraberritzeko Plan Bereziaren hamaseigarren xedapen-aldaketari.

3. Maiatzaren 9ko Euskal Kultur Ondarearen 6/2019 Legearen 4 eta 47.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, dagozkion eskumenen arabera txostena eman dezan eskatzea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Euskal Kultur Ondarearen Zentroari.

4. Dosierra jendaurrean jartzea, hogei egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzat dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 29an

Alkate lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE